



Eta etorkizunera begira zer...

Irurako Udalak 2021. urtean udaletxeko eraberritzearekin hastea du asmoa. Jarraian, etorriko lirateke beste bi udal-espazioen egokitzapenak.

Testuinguru honetan, Irurako udal gobernuak partaidetza-prozesurako sortutako Jarraipen Batzordeari segida ematea erabaki du, prozesutik eratorritako erabakiak kontuan hartzen direla eta udal-eraikin bakoitzaren martxa partekatzeke helburuarekin.



Información disponible en castellano en la oficina de Cultura  
o en la página web [www.irura.eus](http://www.irura.eus)

**HIRU UDAL-ERAIKINEN INGURUAN  
ELKARREKIN ERABAKI DUGU!**

**MILA ESKER!**



## 1. FASEA Prozesuaren oinarriak adostu

### JARRAIPEN BATZORDEA

Irailaren 23an sinatu zuten Jarraipen Batzordeko lau kideek akordio-orria. Bi herritarren, boluntarioak eta bi udal-ordezkarien egitekoa partaidetza-prozesua berme guztiekin egingo zutenaren jarraipena egitea izango zela berretsiz.

## 2. FASEA Informazio fasea

### BISITA GIDATUA

Urriaren 2an, 10 lagunek hiru udal-eraikinak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, bata eta bestearen gabezia eta indarguneak ikusiaz.

### PROPOSAMENAK HELARAZTEA

Herrian zehar eta auzoz auzo informazio-taulak jarri dira, baita herritarren iritzia jasotzeko postontzi bat ere. Guztira, hamabi lagunek ekarpenak jaso ziren, ondoren gogoeta-fasean kontutan izan direnak.

## 3. FASEA Gogoeta fasea

### GOGOETA-SAIOAK

Bi gogoeta-saio egin dira azaroan zehar eta bata, zein bestean 20 bat lagunek hartu zuten parte. Lehen saioan, lurako herritarren beharrak identifikatzen aritu ziren eta hurrengoan, aztergai izan diren 3 udal-eraikinen erabilera posibleak identifikatu dira, beti ere, aurrekontuaren muga kontutan izanda.

### UDAL-TEKNIKARIEKIN LAN-SAIOA

Tartean, lurako Udaleko udal-teknikariekin ere lan-saio bat burutu da, berriaz beraien beharrak eta proposamenak jasotzeko helburuarekin.



### Udaletxearen eraberritzea.

Aurkeztutako 3. aukera lehenetsi da. Irisgarritasun baldintzak eta betebeharrak erantzutea, energia-eraginkortasunean hobetzea... azken finean, lurako herritarrei harrera eta udal-zerbitzu hobek eskaintzea



### Zahar-etxeko beheko solairua.

Lehentasunen hurrenkeran, bigarrena. Herri-ostatu bat zabaltzea aurreikusi da, kultur ekitaldietarako espazio bat ere izatea nahi delarik.



### Haurreskolako lehenengo solairua.

Hirugarrena eta azkena. Erabilera anitzeko espazio bat izatea proposatu da, hala nola, kirol diziplina zehatzen ikastaroak eskaintzeko, elkarte eta eragileek bilerak egiteko...

## 4. FASEA Itzulera

### ITZULERA-SAIOA

Irurako Udalak, Jarraipen batzordeko kideen berrespenarekin, eta herritarrekin, zein udal-teknikariekin landutakoa oinarri izanda, hartutako erabakia eta lehenetsitako proposamenak aurkeztu zituen.